

## II. GRAMATIKA

### SUBJUNTIBOA I: AURKEZPEN OROKORRA

Aurreko ikasgaietan 'baldintza' eta 'ahalera' ikasi duzu. Orain *subjuntiboa* ikasiko duzu.

#### 1. SUBJUNTIBOA honako kasu hauetan erabiltzen da:

- a. 'Borondatea' adierazten duten *komeni izan, nahi izan, eskatu, erregutu...* aditzen osagarri.

Adibidez:

- ⇒ *Isil dadin eskatu diot.* (que se calle)  
*Lehenbailehen egin dezaten komeni da.* (que lo hagan)

- b. 'Helburua' adierazteko.

Adibidez:

- ⇒ *Lasai dadin esan diot hori.* (para que se calme)  
*Hobeto ikus dezazun piztu dut argia.* (para que veas)

- c. 'Agindua' adierazteko (1. pertsonan).

Adibidez:

- ⇒ *Joan gaitezen lehenbailehen.* (¡vayamos!)  
*Ikus dezagun zer nahi duten horiek.* (¡veamos!)

### 2. SUBJUNTIBOA **ELA**

Zehar agintea adieraz dezake:

Adibidez:

- ⇒ *Jan ezazu dena.* ⇒ *Dena jan dezazula esan dizut.*  
( = Dena jateko esan dizut)

- Sar zaitetz barrura.* ⇒ *Barrura sar zaitetzela esan dute.*  
( = Barrura sartzeko esan dute)

#### **Oharra:**

Subjuntiboaren aditz nagusia aditzoina izaten da euskalki batzuetan (*sar, ibil, eros, gal...*) eta partizipioa beste batzuetan (*sartu, ibili, erosi, galdu...*). Euskara batuan aditzoina erabiltzen da, baina aditz batzuetan partizipioa ere onartua dago.

## SUBJUNTIBOA II: NOR eta ZER-NORK

### 1. Forma

	NOR	HURA-NORK	HAIEK-NORK
Orainaldia	NADIN	DEZADAN	DITZADAN
	ZAITEZEN	DEZAZUN	DITZAZUN
	DADIN	DEZAN	DITZAN
	GAITEZEN	DEZAGUN	DITZAGUN
	ZAITEZTEN	DEZAZUEN	DITZAZUEN
	DAITEZEN	DEZATEN	DITZATEN
Iragana	NENDIN	NEZAN	NITZAN
	ZINTEZEN	ZENEZAN	ZENITZAN
	ZEDIN	ZEZAN	ZITZAN
	GINTEZEN	GENEZAN	GENITZAN
	ZINTEZTEN	ZENEZATEN	ZENITZATEN
	ZITEZEN	ZEZATEN	ZITZATEN

**Oharra:** NOR adizkien ezaugarria *-di-* edo *-(i)te-* da: *nadin, gaitezen, nendin, gintezen...*

ZER-NORK adizkiarena, berriz, *-za-*: *dezadan, ditzadan, nezan, nitzan...*

Adibidez:

→	<i>Polikiago ibil zaitetzen nahi genuke.</i>	(que anduvierais)
	<i>Zu joan zintezten eskatu zuen.</i>	(que fueras tú)
	<i>Loreak eros ditzaten eskatu diet.</i>	(que compren)
	<i>Hiru liburu irakur genitzala agindu zigun.</i>	(que leyéramos)
	<i>Isil dadila berritsu hori!</i>	(que se calle)
	<i>Egon gaitezen lasai!</i>	(¡estemos!)
	<i>Ez dezatela ezer har!</i>	(¡que no cojan!)



# ARIKETAK

## 1. BETE HUTSUNEAK, -eN gisako subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

☛ Lana uztea komeni zaio, ondo **senda dadin**. (senda)

1. Haurrak hamarretarako etxean ... komeni da. (egon)
2. Garbi ... eskatu diogu mutilari. (hitz egin)
3. Etxeko giltza eman digute, nahi dugunean ... (sar)
4. Lasaiagarria eman diogu, lasaiago ... (egon)
5. Ariketa guztiak orduantxe bertan ... eskatu zigun maisuak. (egin)
6. Nahi dutena ... ez ditugu kontratatu. (egin)
7. ... (guk) leihoak, ito egingo gara bestela. (ireki)
8. Aurreko bi gupilak ... eskatu nien, baina ez dituzte aldatu. (alda)
9. Bazkaria nik ... nahi zuen, baina ez nion kasurik egin. (presta)
10. Ondo ... eskatu nien, baina beti bezala portatu ziren. (porta)
11. Zer egin behar da, jendea pozik ... (bizi)
12. Bakarrik zegoela esan zidan eta berarekin ... eskatu zidan. (atera)
13. Esan dutenez, komeni da zuek ere informatika ... (ikas)
14. Lasaiago ... , lehenago irten behar zenuen. (ibil)
15. Leihora irten zen, jende guztiak ... (ikus)

## 2. BETE HUTSUNEAK, -eLA gisako subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

☛ Kanpoan **gera gaitzela** esan digute. (gera)

1. Aizue, ... esan dute, ez dutela ezer aditzen. (isil)
2. Atea giltzaz ... esan didate, baina ez didate giltza eman. (itxi)
3. Polikiago ... esan diote, zarata handiegia egiten duela. (ibili)
4. Zu ere taldean ... agindu zizuten, zure beharra baitzuten. (sar)
5. Aulki guztiak bere lekuan ... (zuek) esan du zuzendariak. (jar)
6. Garaiz ... agindu ziguten gurasoek, baina beti bezain berandu erretiratu ginen. (erretira)
7. Ariketa guztiak ... agindu zidan irakasleak, baina bi ez nekizkien egiten. (egin)
8. Haurra ... eskatu zigun izebak, baina, egia esan, ez genion kasu handirik egin. (zain)
9. Afaria ... esan digu amak, baina ez dakigu zer jarri. (presta)
10. ... esan du Anek; mugitzen ez bazara, trena galduko duzula. (mugi)

### 3. ALDA ESALDIAK, subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

- ➡ Guraso denak **joatea** komeni da.
- ➡ Guraso denak **joan daitezen** komeni da.
- ➡ Garaiz **itzultzeko** utzi nizun autoa.
- ➡ Garaiz **itzul zitezten** utzi nizun autoa.
- ➡ Lasai **egoteko** esan dizut!
- ➡ Lasai **egon zaitzela** esan dizut!

1. Gauza guztiak astiro aztertzea (guk) komeni da.
2. Atsedena hartzeko oporretara joatea komeni zaio.
3. Sartzeko agindu diete, baina kanpoan geratu dira.
4. Ezer ez esateko agindu ziguten.
5. Ondo bizitzeko, bakea behar du pertsonak.
6. Gu joatea nahi du amak.
7. Inor ez irteteko esan dute.
8. Aste osoko egunkariak erosteko eskatu digu.
9. Beregana hurbiltzeko agindu zigun.
10. Indarra izateko, asko jan behar duzu.

### 4. EUSKARA ITZAZU ONDOKO ESALDIAK, subjuntiboa erabiliz.

1. Conviene que entren todos.
2. Ha traído estos libros para que los lea Pello.
3. ¡No seas así!
4. ¡Vayamos todos juntos!
5. Nos ha dicho que dejemos este paquete aquí.